

ARGITALPEN BATZORDEAREN ERREGELA BEREZIAK (*)

1. *Artikulua.*—Euskaltzaindiaren Arautegiko 27, 40, 41 eta Barne-Erregeletako 16, 20, 21, 22, 23, 24, 25, 26, 36 eta gehigarritzko artikuluan eskatzen denaz zer-ikusi dute Erregela Berezi hauek. Horien osagarri eta hazkunde dira, beraz.

2. *Artikulua.*—Argitalpenen arloko zeregina antolatzeko burutuak direnez gero, eta arlo horren ardura Argitalpen Batzordeari dagokiolarik, Batzorde honen ibilpide-legeak ezarri, finkatu eta mugatu nahi dituzte Erregela Bereziok.

3. *Artikulua.*—Argitalpen Batzorde honen batzordekideak hauek izango dira:

1. Euskaltzainburua.
2. Euskaltzainburu-ordea.
3. Idazkaria.
4. Argitalpen Eragilea.
5. Ekonomi Batzordekideren bat.
6. Azkue Bibliotekako Batzordekideren bat.
7. IKER saileko batzordekideren bat.
8. JAGON saileko batzordekideren bat.
9. Beste bi euskaltzain.

4. *Artikulua.*—Batzorde honen bilerak Euskaltzaindiaren egoitzan izango dira, edo Euskaltzaindiaren batzar-egun eta tokian, baina ordu desberdinetan.

(*) *OHARRA:* Orain arte zegoen batzordea suntsitzen da.

(1984.eko Urtarrilaren 27ko eta Otsailaren 24ko hileko batzarretan onartua).

5. *Artikulua*.—Bilera arruntak urtean gutxienez bi izango dira. Deiak Batzordeburuak egingo ditu.

6. *Artikulua*.—Euskaltzaindiaren izenaz plazaratzen diren liburu eta liburusken argitaratze eta banatzearen ardura Argitalpen Batzordearen gain dago; beronek argitalpen bakoitzaren martxa jarrai eta kontrolatu beharko du hasi eta buka.

7. *Artikulua*.—Gaur egun Euskaltzaindiak argitaratzen dituen sortak honako hauek dira, hots:

1. *Euskera* agerkaria.
2. Euskararen Lekukoak.
3. IKER sailekoak.
4. JAGON sailekoak.
5. Izendegiak.
6. Beste zenbait argitalpen solte.

Beste bildumen bat sortu behar balitz, Argitalpen Batzordeari dagokio erabakitzea eta Euskaltzaindiari berrestea.

8. *Artikulua*.

8.1. Argitalpen prestakuntzari dagokionez, Argitalpen Batzordeak onartu beharko ditu argitaratu behar diren testu guztiak.

8.2. *Euskararen Lekukoak* bildumarako eta lanaren berezitasunak hala eskatzen duen bakoitzean, Azpibatzerde bat izendatuko du lana aztertzeko.

9. *Artikulua*.—Lana onartua izan ondoren, zein bildumatakoa den, eta hango baldintzak errespetatuko ditu Argitalpen Batzordeak; bildumez kanpora balitz, argitalpenaren xehetasun guztiak erabakitzea berari dagokio. Xehetasun hauek jakin ondoren, Eragileak bi aitzinkontu bederen eskatuko ditu, eta zein onartzen den Batzordeak erabakiko du. Azken erabakia ezin har daiteke harik eta Ekonomi Batzordeak —finantziaketa jesticioak egin behar baititu— aintzinkontuari buruzko bere adostasuna eman arte.

10. *Artikulua*.—Inprimategiarekin harremanak Eragileak burutuko ditu eta ez da beste inor arazo honetan sartuko, salbu Batzordeburua. Baina beharrezko balitz, liburuaren egile, prestatzaile edo batzordekideren baten laguntza eska dezake Eragileak.

11. *Artikulua*.

11.1. Argitalpen Azpibatzerde eragileak erabakiko du trukez, zabal-kundez nahiz dohainik, emango diren aleak eta salneurria.

11.2. Aipatu Azpibatzerde eragilekoak hurrengo hauek izango dira:

1. Batzordeburua.
2. Argitalpen-Eragilea.
3. Ekonomi Batzordekide Arduraduna.
4. Azkue Bibliotekao Batzordekide Arduraduna.
5. Salmenten arduraduna.

12. Artikulua.—Ekainaren azkena baino lehen, hurrengo urteko plangintza eta programaketa prestatuko ditu Argitalpen Batzordeak. Plangintza eta programaketa hori Irailaren azkena baino lehen Argitalpen Batzordeak erabakiko du, diruaren aldetik Ekonomi-Batzordearen oneritzia jasorik.